

# WILSONEN ARGILUNAK

## Woodrow Wilson: Gerrako heroia alde batean, segregazioaren arduradun bestean

 **HISTORIA** / Urtzi URRUTIKOETXEA

Woodrow Wilson AEBetako 28. lehendakaria izan zen. Bere eskutik, I. Mundu Gerraren amaieran Europako gatazkan sartu ziren estatubatuarrek, eta Polonian eta beste leku batzuetan, independentziarako giltzarri gisa ikusi ohi da. Hegoaldetik zetorren, alabaina, eta berarekin sartu ziren Etxe Zurian garaiko ideiarik arrazistenak.

**E**gunotan 100 urte bete dira Woodrow Wilson Amerikako Estatu Batuetako presidentea hil zela.

Nazioartean ezaguna da I. Mundu Gerran izandako rolagatik, Nazioen Liga sortzeagatik, eta autodeterminazio-eskubidearen oinarrietan izan zuen garrantziagatik. Etxean,

baina, beste alde izugarri bat ere bazuela gogorarazi dute: arrazismoaren aurka egin beharrean, herrialdean bizi zen segregazioa hauspotu zuen.

Bakearen alde eta gerraren aurka nazioarteko foro garrantzitsuak eratzearen garrantzia, inperioen mende zeuden herriek autodeterminazio-eskubidea zeukatela onartzea izan

«Woodrow Wilson AEBetako presidentek pilota jaurti zuen 1916ko beisbol denboraldiaren hasiera egunean. AEB-ETAKO KONGRESUKO LIBURUTEGIA

da Woodrow Wilson AEBetako presidenteaz gogorarazi ohi den ondare garrantzitsuenetakoa. Polonian eta Europa erdialdeko beste hainbat herrialdetan modu berezian aipatu ohi da: 1918an AEBetako Kongresuan egindako 14 puntutako hitzaldiak berariaz aipatzen zuen orduko inperioen mende zeuden nazioek beren etorkizunaz erabakitzeke zeukaten eskubidea. I. Mundu Gerraren amaierarako Woodrow Wilsonek aurreikusten zuen mundu-ordena berria zen. Europarako zeukan ikuspegi horrek Bakearen Nobel Saria ekarri zion 1919an Wilsoni; baina, era berean, arrazismo sakonean dauka ifrentzua, presidente zen herrialdera begira ezkutatzeko ere saiatzeko ez zen supremazismoan. Hala, AEBetan gaitzitzen ari ziren segrega-

zio-politika batzuetan atzera egin zuen presidente demokratik, funtzionario beltzak kaleratzeraino.

### HAMALAU PUNTU

Bigarren agintaldia hasi eta gutxira, XX. mendea markatuko zuten erabakiak hartu zituen Woodrow Wilson: I. Mundu Gerran erabakigarria izan zen hitzaldia egin zuen Washingtoneko kongresuan, funtsean AEBak gatazkan inplikatzeko ekarri zuen kongresuan. Hamalau puntutan laburbildu zituen bere printzipioak, eta inperioen mende zeuden herrien autodeterminazio-eskubidearen alde egin zuen. Zehazki aipatu zituen Austria-Hungariako herriak, Errusiaren mendekoak zirenak, eta Poloniaren independentzia bultzatu zuen hamahirugarren puntuan. Ez da harritzekoa, beraz, Poznan hirian Wilsonen omenezko parke bat eta AEBetako presidentearen monumentu bat egotea. Otomandar inperioan Turkiako estatu bat sortzea ere bultzatu zuen, baita armeniarrek beren lurraldea izatea eta kurduak erabakitzeke eskubidea izatea ere. Bidean, hamalagarren puntuak Nazioen Liga sortzearen beharra azpimarratzen zuen. Egia da Ligak ez zuela eragotzi II. Mundu Gerra piztea, baina Nazio Batuen Erakunde bihurtu zen, halaber, nazismoa garaitutakoan.

Une historiko zehatz horretan zelan jokatu asmatzeak markatu du Wilsonen irudia hurrengo ehun urteetan. Gerra amaitu, Parisko Konferentzian Europa berrantolatu, Bakearen Nobel Saria jaso eta Nazioen Liga eratu zuen, harik eta 1919ko irailean garuneko isuria izan eta elbarri geratu



**Gerra amaitu, Parisko Konferentzian Europa berrantolatu, Bakearen Nobel Saria jaso eta Nazioen Liga eratu zuen, harik eta 1919ko irailean elbarri geratu zen arte**

**Hegoaldetar petoa zen, ustez herrialderako zituen ideia progresistekin batera, sakoneko arrazismoa zekarren, eta supremazismoa bizi-lege naturalena balitz bezala bizi zuen**

zen arte. Hurrengo urtean hauteskundeak izanik, Etxe Zuria utzi zuen, eta 1924an hil zen, duela ehun urte. Fun-tsean, beraz, bizpahiru urteko ekinak famatu du Wilson hurrengo mende guztian. Bai Europan, baita etxean ere, asko dira oraindik Woodrow Wilson omentzen duten lekuak. Washingtoneko Institutu garrantzitsuenetakoak iaz arte izan zuen izen hori. Baina lorpen garrantzitsuekin batera, AEBetako presidente ohiaren arrazismo itsua ere gero eta nabarmenago geratu ohi da, pertsonaia historikoa aztertzerakoan aintzat hartu beharreko ezinbesteko elementu gisa.

#### AEBEN ATAKA HISTORIKOA

XIX. mendearen amaieratik, AEBek burutu zuten bi ozeanoen arteko hedapen kontinental Ipar Amerikan. Hurrengo urratsa, itsasoetarantz egin zen: Hawaii konkistatu zuen, eta Espainiari gerra irabazita Karibeko (Kuba, Puerto Rico) eta Pazifikoko (Filipinak, Guam) lurralde garrantzitsuak bereganatu zituen, baita bien arteko lotura bermatu ere, Panama Kolonbiatik bereiztea bultzatuz, eta kanala eraikiz.

Testuinguru horretan iritsi zen boterera herrialdeko 28. presidentea. Princeton unibertsitate garrantzitsuko errektorea izana zen, eta AEBetako

historian doktoretza-tesi bat egin duen presidente bakarra izan da. 1912ko hauteskundeak irabazita, hurrengo urtean sartu zen Etxe Zurian. Handik urte eta erdira, I. Mundu Gerra piztu zen Sarajevoan.

Presidente berriak etxe barruan jarri zuen arreta, gaur eguneraino iritsi diren aldaketak ekonomikoak ezarritik: errentari buruzko zerga ezarri zuen eta Erreserba Federala sortu zuen. Theodore Rooseveltekin batera hasitako sasoi progresista bizi zuen herrialdeak, langileen eskubideak definitzen, boteretsuen betebeharrak ezartzen edo haurren lanaz aritzen hasi ziren. Oro har mendebaldeko herrialdeetan zeuden mugimenduak ziren, emakumeen botoa aldarrikatzen zuen sufragismoa bezalaxe: zenbait estatuk onartua zeukaten Wilson Etxe Zurira iritsi zenerako, eta gehienek oraindik debekatzeko bazuten ere, presioa gero eta handiagoa zen. Era berean, baina, herrialde industrializatuak joeren aldean bazegoen bat Estatu Batuei zegokiena zehazki: 1865eko Gerra Zibilaren amaierak esklabotzaren amaiera ekarri zuen, eta «Berreraikuntza» garaia hasi zen ofizialki, baina handik gutxira Jim Crow legeek segregazioa instituzionalizatu zuten AEBetako Hegoaldean. Eraba-



Emakumeen botoaren aldeko desfilea New Yorken, 1912ko maiatzaren 4an. AEB-ETAKO KONGRESUKO LIBURUTEGIA


teko bazterketa ezarri zen esklabotzatik kanpo, baina boto-eskubiderik gabe erabateko mendekotasunean bizi ziren afro-amerikarrentzat. Ku Klux Klan eta beste talde paramilitar batzuek erabateko zigorgabetasunez ezarri zuten supremazismo zuria.

#### PRESIDENTE ARRAZISTA

Egoera jasangaitz horretan, 1910eko hamarkadan (Woodrow Wilson 1913an sartu zen Etxe Zurira) Migrazio Handia hasi zen. Milioika afro-amerikarrek Hegoaldeko nekazari-guneak utzi eta Iparraldeko hiri-industrialetarantz jo zuten hurrengo mende erdian. Washington hiriburua herritar beltzen portzentaje handiena zeukan hiria zen (gehiengoa zuria izan zen, hala ere, 1950eko hamarkadara arte), lanpostu federaletan erakarrak, afro-amerikar klase ertainaren ernamuina izan zen. AEBetako presidentea, Virginian jaioa eta Georgian hazia, hegoalde-tar petoa zen, ustez herrialderako zituen ideia progresiste-

kin batera, sakoneko arrazismoa zekarren, eta supremazismoa bizi-lege naturalena balitz bezala bizi zuen. Hala, 1913an presidente bihurtutakoan, ordura arte egindako urrats askotan atzera egin eta lanpostu federalak segregatzea agindu zuen. Hegoaldean ez bezala, elkarren ondoan lanean gero eta normaltasun handiagoz aritu ziren langileak fisikoki bereiztera behartu zituen, eta hainbat beltz kaleratzea bultzatu zuen. Hori guztia, langileen aldeko agenda bat zekarren bitartean.

Zalantzarik gabe, bere garaian oinordeko zen Woodrow Wilson, baina garai hartarako ere oso arrazista zen jarrera izan zuen. Gerra Zibiletik Etxe Zurira iritsi zen Hegoaldeko lehen herritarra izan zen, horretarako Iparraldean karrera egin eta Princeton unibertsitateko errektore bihurtu bazen ere (han ere, ikasle beltzak matrikulatzearen aurka egin zuen). Historian doktore, konfederatuen ondorengoen «Kausa Galdua» bere egin



zuen “The History of American People” lanean (Estatubatu-  
ar herriaren historia); fun-  
tsean, Hegoaldeko zuriak  
zapaltzaile izatetik bere burua  
mehatxatuta ikustera dara-  
man ideia da, eta beltzak alfer,  
ezjakin eta primitibo gisa era-  
kusten ditu.

Wilson izan zen Etxe Zurian  
lehen aldiz film bat proiektatu  
zuen lehen presidentea. Erai-  
kinaren mendebaldeko aldera  
ekarri zuten arte-mota berrira-  
ko proiektore bat, eta DW Grif-  
fith-en “The Birth of a Nation”  
 (“Nazio baten jaiotza”) ikusi  
ahal izan zuten emanaldi pri-  
batuan. Zinemaren historiako  
lehen film arrakastatsuetakoa  
da “Nazio baten jaiotza”, eta  
«Kausa Galdua»-ren dotrina  
bere egiten du; gaizkile gisa  
ageri diren afro-amerikarrak  
aurpegia beltzez margotutako  
aktore zuriak ziren. Zintaren  
hasieran, Wilsonen liburuko  
esaldi bat zetorren: «Gizon zu-

riak biziraupeneko instintu  
soil batek piztu zituen [...] az-  
kenean Ku Klux Klan handi  
bat sortu zen arte, benetako  
hegoaldeko inperio bat, He-  
goaldeko Nazioa babesteko». Film  
supremazista hori izan  
zen Etxe Zurian ikusi zen lehe-  
na, Woodrow Wilsoni esker.

**SUFRAGISMOA AURRERA**

Era berean, gero eta indartsua-  
go ziharduen mugimendu su-  
fragistak; kasu honetan, anbi-  
guotasun kalkulatu batekin  
jokatu zuen Wilson. Presi-  
dentetzara sartu zenean, pro-  
testa sufragista izan zen Wa-  
shingtonen, baina, oro har,  
lehen agintaldian auziari ez  
heltzea lortu zuen Wilson. Etxe  
Zurian hartu zituen behin baino  
gehiagotan, haien aldarrikapenak entzu-  
ten zituen, baina bere agenda  
propioa zeukan Wilson. Are  
gehiago, New Jerseyko esta-  
tuak gaiari buruz bozkatu zue-

David Lloyd George  
«premier» britainiarra,  
Vittorio Emanuele Orlando  
lehen ministro italiarra,  
Georges Clemenceau lehen  
ministro frantziarra eta  
Woodrow Wilson  
presidente estatubatuarra,  
Parisko Bake Konferentzian  
1919ko maiatzaren 27an,  
Lehen Mundu Gerra amaitu  
ondoren.  
U.S. SIGNAL CORPS PHOTO  
COLLECTION

nean, emakumeen botoaren  
alde bozkatu zuen; hau da, es-  
tatu federalek hura legeztatze-  
aren alde egiten zuen, bai-  
na Etxe Zuritik jarrera hori  
herrialde guztira hedatzearen  
aurka zegoen. Estatuak Wa-  
shingtonen baino eskumen  
handiagoak izatea bat zeto-  
rren, azken batean, Hegoalde-  
ko biztanle zuri askoren ikus-  
pegiarekin: Iparraldean nahi  
zutena egin zezatela, Hegoal-  
dean segregazioan sakondu  
ahal zuten bitartean. Azken

**Gero eta indartsuago ziharduen mugimendu  
sufragistak, baina anbiguotasun kalkulatu  
batekin jokatu zuen Wilson. Lehen  
agintaldian auziari ez heltzea lortu zuen**

**Emakumeen botoa onartzen zuen emendakina  
1920an sartu zen indarrean. Woodrow Wilson  
presidentetza uztear zen, eta lau urte  
beranduago hil zen**

batean, beltz gehienei botoa  
ukatzen zitzaien Hegoaldean.

Sufragistekiko alde biko ja-  
rrera hori bete-betean lehertu  
zitzaion, bigarrenaz hautes-  
kundeak irabazi eta agintaldi  
berriari ekin zionean. Kargua  
hartzeko egunean bertan, zor-  
tzi mila sufragistak deitutako  
martxa izan zen Washingto-  
nen. Protesta hura mugagabea  
bihurtu zen, gau eta egun zeu-  
den. 1917ko martxoan, atxilo-  
ketak hasi ziren, dozenaka su-  
fragista espetxeratu zituzten.  
Kartzelan, gose-grebak egin zi-  
tuzten, behartuta elikatu zi-  
tuzten, egoera gero eta gogo-  
rragoa bihurtu zen.

Bitartean, Europako gerra  
ere ate-joka zeukaten Estatu  
Batuetan, eta horretan ema-  
kumeen ekarpena ezinbeste-  
koa izan zen. Azkenean,  
1918ko urtarrilean, Kongre-  
suaurrean hitza hartu  
zuen Woodrow Wilson, eta  
14 puntutako zerrenda ezagu-  
na mahai gainean jarri zuen.  
Orduantxe etorri zen emaku-  
meen botoari buruzko aldake-  
ta ere. Beste urtebete joan  
behar izan zen AEBetako kon-  
gresuan 19. Emendakina onar-  
tzeko behar beste boto egon  
zitezten. I. Mundu Gerra amai-  
tua zen, Wilson Europara  
zihoan Parisko Konferentzian  
parte hartzera, eta segidan Ba-  
kearen Nobel Saria eman zio-  
ten. Handik gutxira garuneko  
isuria izan zuen, ordea. Ema-  
kumeen botoa onartzen zuen  
emendakina 1920an sartu zen  
indarrean. Wilson presidente-  
tza uztear zen, eta lau urte be-  
randuago hil zen. Washingto-  
neko katedralean ehortzi  
zuten, egun ere AEBetako hiri-  
buruan hilobiratutako presi-  
dente bakarra da, Arlingtone-  
ko hilerri ezaguna Potomac  
ibaiaren beste aldean baitago,  
Virginiako lurretan.